

# IKASTEETARA (Dagidan)

Abade-ikasketak egin dagidazan txikitatik izan neban barruko deia, iñori agertu barik.

Bein baten, neu lez Martin izena eta Sagasti abizena eukazan abade batek, Morga'koa berau, itaun au egin eban Gamiz'ko sakristian, meza-lagun giñanok erantzuk dagigun: Abade izan gura dozue? Eta nik baietz esan neban. Laster jakin eban ori Kristobal gure erriko abadea'k eta ontzat artu eban.

\* \* \*

Orrilla zan. Gamiz'tik aldapazgora gure baserrira etorri zan abadea. Txakurra ausika asi zan eta amak katetik oratuta lotu eta abadea suetea ikusi neban laster. Bai-

ña amak ez eban nai izan nik euren berbetea entzun dagidan eta solora joan eta bedar-ebagiten lan egin dagidala eskatu eustan. Ez gogoz, baiña orrelan egin neban.

Aitak eta amak, lagundu dagiala eskatu eben eta abadeak baietza emon be bai. Dana egoan prest abade-ikastera joatea egin dagidan.

\* \* \*

Arenaza'tar Ignazio Jauna zan erriko maisua eta; arexek lortu eban joateko bear ziran azkenengo ikasketak egin dagidazala.

Gero Asaburu'ko Markaida'tar Mari Andereño irakasleak be irakastaldi batzuk emon ebazan, bes-

te batzukaz batera, gertatzea ondo egin dagidan.

Iraillaren 29'an, Mikel Deunaren egunean, abadeagaz eta beste Fruniz'tar batzukaz, Pamtiko Abaneruaren Hispano-Suizo berebillea sartu nintzan Bergara'ra joan eta ikasketak asi dagidazan.

Guda-osteko urteak ziran, gose-urteak. Amaika urteko mutiko nintzala, antxe geratu nintzan gabonetara arte, gero gabonetan amabost egun etxean egin eta barriro ara udara arte. Ez ziran urte politak. Erdera be gitxi jakin eta euskerarik iñondik entzun ez! Baiña aurrera jarraitu bear, nai dodan elburua lortu dagidan.

MARTINTXU

## USANSOLO-84 IPUIN SARIKETA

Usansolo'ko E. A. J.'ren Batzokiak, Ipuin sariaketa bat eratzen dau.

Baldintzak oneik izango dira:

- 1.º Bizkaiko euskeraz idatziak izan bearko dira.
- 2.º Ipuin itzulituak ez dira onartuko.
- 3.º Luzeera iru orri-aldetik bostera bitarte bi lerroartean dituela.

4.º Sariak iru izango dira. 1.ª, 30.000 peseta; 2.ª, 15.000 peseta; 3.ª, 8.000 peseta.

5.º Sari onetatik bat, Usansolo'tar batentzat izango da.

6.º Epea. Urrillaren azkeneko Usansolo'ko E.A.J.'ren Batzokian Oletxe kalean, 16'an Galdakao, izan bearko dira.

7.º Maikoen erabagia Zemendia-  
ren 30'an (Ander Deuna)  
agertuko da, Usansolo'ko  
jaien barruan.

8.º Ipuin sarituen jaube Usansolo'ko E.A.J. Batzokia izango da, eta non argitaratu bere ardura. Sari barik gelditzen diranak Batzokian izango dabez euren lanak uzabaren zain.

9.º Ipuinak izen-ordeaz bialduko dira eta izen-orde ori gaitan daroan azal baten barruan sartu izen-ordea eta izena batera daroazen agiria.